KULTURA EMAKUMEAREN EGOERA MUNDUAN ZEHAR ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA
GEHIGARRIA GAZTIA NAIZ BARREN · KIROLA MINTXETAKO BELAR ARTIFIZIALA UDAN ALDATUKO DUTE

# BaRRen

ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko apirilaren 16a/XII. urtea/4[illegible]. zkia




## Zazpi urte eta gero...

"GAZTEEKIN EZ DABILANA, GOIZIK ZAHARTZEN DA" (Esaera zaharra)

# BASKO RENT

**GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA**

## MANTENDU EZAZU ZURE AUTO GARBI eta PREST!




## ESKAINTZA BEREZIA:

**PNEUMATIKOAK 4 X 3- 3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU**

**ESKUZ EGINIKO GARBIKETA**

**GARBIKETA AUTOMATIKO PUBLIKOA**








### HORREZ GAIN:

OlioarEn Edo filtroen aldaketa
PnEumatikoen aztErkEta Eta aldakEta
BalaztEn EtE esEkidurarEn azterketa
MantenimEndu orokorra

## SIGMAKO INDUSTRIALDEAN GAUDE

**7 eta 8 pabilioiak Elgoibar**

**ts 902 103 287**

MICHELIN

rarestone

GOOD,YEAR



## Esan didate

Esan didate burtsak pixka bat gora egin duela.

Esan didate auto istripuz hiru gazte hil direla bart.

Esan didate itsasgora gauerdian tokatzen dela eta ilargia ez dela gaur ere osoa izango.

Esan didate langabezia ez dela iaz bestekoa.

Esan didate Aste Santuko prozesioko Ama Birjinari begi bat falta zitzaiola.

Esan didate gaur ere euria egingo duela eta itsasoan, itsaskirria.

Esan didate torturarekin kanpaina egiten dela.

Esan didate hegazkina atzerapenez hegaldatuko dela.

Esan didate honek hura esan duela eta hark, hark ez duela belarririk ezer esateko.

Esan didate beste mila haur gosez hil direla.

Esan didate salmonelarekin gizon bat larri dagoela.

Esan didate mundu erdia estresatuta bizi dela eta beste erdiak ez dulea erlojurik heriotzarako falta zaizkion segunduak neurtzeko.

Esan didate agure bat penaz hil dela.

Esan didate homosexual bati bizitza ez zaiola gaur hain zaila egin.

Esan didate eskale batek hotza pasa duela gauean eta berogailua piztuta uztearren bikote bat kixkali dela bi farola urdin dituen kale batean.

Esan didate aste honetan ere munduak nazka ematen duela.

Eta esaten dizut. Hemen nago parke huts bateko putzuan zure irrifarrari forma eman nahian.

Uxue Alberdi

Cn
rn
77–
O
o
N :
(1)



## Pilar Ikastetxekoei zuzendua,

eta zuei batik bat, irakasleei, izan dugun harremanarengatik. Ez nuen uste azken aldiz zuekin izan nintzenean egoera honetara iristear zinetenik. Zuekin izan ditudan (eta bukaerara arte, bukaerarik bada behintzat izango ditudan) lan harremanak direla medio elkar ezagutzeko aukera izan dugu, profesionalki ez ezik, pertsonalki ere.

Oso eroso sentitu naiz zuen artean. Seriotasuna eskaini didazue, lasaitasunez eta umore onez onartu nauzue eta aparteko exigentziarik gabe burutu ditugu erlazio komertzialak. Profesionalki galera garrantzitsu bat dela niretzat badakizue, baina honek ez dit kezka izpirik ere sortzen, jakina baita gure munduan hemengo galerak kanpo irabaziekin ordaintzen ditugula. Bihotzez sentitzen dudan lastima beste arrazoi batzuengatik da: ikastetxearengatik, kurtso batetik bestera lankideen etorkizuna kolokan jartzen delako; bertako ikasleen gurasoen hezkuntza aukera kolokan jartzen delako, eta Elgoibarko herriak ikastetxe bat galtzen duelako. Bere izanean kaltegarria bada ere, are kezkagarriagoa iruditzen zait itxieraren erabakia jaitsiera demografikoaren ondorioa izatea.

En fin, ez dakit zehazki zein duzuen gaur eguneko egoera, ezta zein den etorkizun hurbilekoa ere. Dena den, asko poztuko ninduke aurki zuengana bisitan joaten naizenean, arazoa konponbidean dela entzuteak.

Gotzon Arrieta

Kexak .......................................................5
motz motz ............................................ 8
gehigarria ............................................11
kiROlAk .............................................. 20
aGenda .............................................24

2004-IV- 16

## EIBAR GASTEIZ AUTOPISTARI BURUZ (BARREN APIRILAK 2)

Zur eta lur geratu nintzen, azkenengo Barrenean, Isaae Loiolak Eibar-Gasteiz autopistaren inguruan esandakoak irakurtzean. Honekin, ez dut Isaac-en lanerako gaitasunik dudan jarri nahi (ez dut ezagutzen eta), baina zenbait gauzaren gainean gogoeta egin nahi nuke: Batetik, Elgoibarren ondo baino hobeto dakigu A8 autopista zenbateraino ordaindu dugun urte luzeetan zehar, halako bi egiteko sobera nire ustez. Bidesariak itogarriak izatera iritsi ziren, ezinbestekoa duten erabiltzaile askorentzat (N-634a ez da inoiz balizko alternatiba izan) eta esku publikoetan erortzean bidesarien jeitsieraren goxokiaren propaganda egin ziguten nazkatzera arte (hasita daude berriz ere igotzen). A 1 autopistaren finantziaziorako ere ezinbestekoa omen da A8ko bidesaria, ez al du izango autofmantziatzeko adina erabiltzaile? Ez al zen benetan beharrezkoa? Herritarrok hiru aldiz ordaintzen ari gara autopista hau, gure zergen bidez batetik, A8ko bidesaria ordaintzean eta Aleko bidesaria ordaintzean (dagoen egoera tamalgarrian egonda ere, ez daukate lotsarik bidesaria kobratzeko Bergaran). Nik argi daukat autopista honen atzean noren interesak dauden eta argi daukat baita ere bailarako herritarren auto arazoen irtenbidea ez dela ordaineko autopista txikitzaile hau. Bestetik, obra honen inpaktoa ez dela horren haundia esatea eta paisaiara mugatzea beldurgarria iruditzen zait. Autopista hau egiteko egin dituzten megatunelek megaeskonbrerak ekarri dituzte. Megazubiak eraikitzeko berriz megakanterak behar dira. Kanterek dakarten inpaktoa ikusteko Muniolako kantera dugu adibide Elgoibarren. Bestetik, nola liteke inpaktua paisaiara mugatzea? Ez al ditu ba mendizaleak basabizitza eta landaretza maite? Gauza bat da desarrollismo txikitzaile honetan sinistea eta berau defendatzea, baina ezin dena *egin* da dena berdez estali nahi izatea (Abiadura Haundiko Tren bioekologikoa bezala).

Bukatzeko, Barreni eskatu nahi nioke holako artikuluak argitaratzean ez egiteko Urdacirena eta benetan herritarrak informatzeko gogoa badago beste ikuspuntuak ere jorrarzeko eta herritatroi ere galdetzeko.

I.B.A EHNA Q6827117G

## MARTXA NAZIONALA

Gutun honen bitartez apirilaren 24an Bapaume eta Algeciraseko espetxeetara antolatu dugun autobus martxan parte har dezazuen gonbidatu nahi zaituztegu. Ekimen honen helburua euskal preso politikoen egoeraren aurrean urrats berriak ematea da. Jakina denez, egunetik egunera ari dira gogortzen Espainiar zein Frantziar kartzeletan gure presoek jasaten duten erasoaldi etengabea, euren eskubideen esparrua gero eta murritzagoa delarik. Madrilgo atentatuak aitzakitzat harturik, jipoiak, mehatxuak, irainak, isolamendua eta gradu ezartze arbitrarioak ugaritu dira Espainiako kartzeletan. Egun, zortzi euskal preso politiko besterik ez dira geratzen Euskal Herriko kartzeletan (700 preso dagoeneko). Gaixo daudenak ere eraman dituzte ehunka kilometrora, estrategia mendekatzailea azken bururaino eramanez. Horren ondorioz ere, gure presoen senideek jarraitzen dute errepideetako ezbeharren menpe. Kursaaleko adierazpena gogora ekarrita, "Euskal Herriaren alde eraginez, euskal presoak Euskal Herrira" izango da ekimen berri honen leloa. Zurekin batera lortuko dugu! Eman izena ohiko tokietan.

Amnistiaren Aldeko Migimendua

# Urruzunoren begi ezkutua

## 500



Bostehun kilometro asko ditun
hitz mingotsen poltsak
oinutsik eramateko,
gehiegi ditun bostehun kilometro
hire irribarre,aren oihartzuna
telefonoz izozteko.
Asko ditun bostehun anniarma
zorionaren sareak kurruskatzeko,
gehiegi ditun.
Zati hitzan niri kontatutako bostehun gezurrak
ehun zenbakiaz,
Baina bost bihotz pusketa gehiegi ditun.
Goazen,
hara non ez den ezagutzen urkabeen ikararik,
heriotza zeremonia bat besterik ez den...

Maite Uriarte

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
11 943 74 41 12
Publizitatea:
e 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informalikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Eigotarlo Izarra

Lasuarzsms4 Elgoibarko Udala **KIORDINATZAILEA** Arnboa **ARROnegii ZUZEHLIARIA ASier Orbea GEHIGARRIER ARDURADUNA** Maite Uriarle **PUBLIZIUTEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERRNTZIA** Jon Peli Unguen **KOLABORATZAILEAR** Jesone **OSOM,** knboa Lodoso, Neslor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao. Gotzon Arriela, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Maninez, Montse Arregi, Juanito Gomstrza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Golzon Garateren liburulik **INPRIAATEGIA** Gertu Koop. E. Tm4ox 4.175 ale **LEGEGOROALUA** SS.1.038/92 ISSN 1139-1855

EGOIBARKO IZARIA
3.1"11,1 11.i.11.11/

*Elgoibarko LIdalak, Eusko Jaurlariszako Kulrura Sailak ero Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

kutxa
zur, tsker

1DANOBAT
LOUINAS MERIIAMIENTA
GRUPO bANIOBAT
ESTARTA
GRUPO DANOBAT

## TXALOAK

• Herritar batek **Elgoibarko Perkusio Taldea txalotu nahi du, joan zen apirilaren 2an eskaini zuen kontzertuagatik:** "Kontzertu bikaina eskaini zuen Elgoibarko Perkusio Taldeak Herriko Antzokian. Lan ona egin dute, eta horren fruitua ikusi eta entzun ahal izan genuen. Musikaz gozatzeko aukera paregabea eskaini ziguten, eta txalo handi bat merezi dute. Jarraitu horrela".

• Gazte koadrila batek **Iñigez Karkizanoko bizilagunak txalotu nahi ditu:** Karkizanoko parkearen atzean txabola bat daukagu, eta inongo arrazoirik gabe gizon batek txabola botatzea nahi zuen. Auzokideek gure alde egin dute, eta eskerrak eman nahi dizkiegu".

• Herritar batek **San Bartolome Parrokia, apaizak eta kolaboratzaile guztiak eskertu nahi ditu** Aste santuko ospakizun guztiak zoragarriak izan zirelako.



• Guraso talde batek **Atxutxiamaika Aisialdi Taldea txalotu nahi du, Aste Santurako antolatu zituen ekintzengatik: "Gure seme** alabek oso ondo pasatu dute ekitaldi guztietan. Herrian ez dago umeentzako gauza askorik, eta benetan eskertzekoa da Atxutxiamaikak egiten duen lana".



## KEXAK

• Emakume batek esan digunez, **Errosario eta San Bartolome kaleetako etxeen artean dagoen karkabia txerrikeria bat eginda dago.** Emakume honek azaldu digunez, ez du inork garbitzen: "40 urtean gutxienez, ez dute karkabia garbitu. Ubideak puskatuta daude, eta katu eta arratoi mordoa dago. Udalak dirutza handia gastatu behar du herria dotoretzen, eta ingurune honetan ere zerbait egin behar dela uste dugu, gutxienez, estolderia aldatu eta apur bat txukundu".

Barrak, Birrak eta Barreak



# ZAZPI URTE ETA GERO...

Zazpi urte eta gero, berriz ere hutsetik hasiko dira danean Gazte Asonbladokoak. Etxebizitzak egin behar dituztela-eta, martxoaren 22an utzi behar izan zuten Gartetxea, eta orain Mupem lantegi zaharro zegoen lokadeon daude.
Gazte Asanbladokoekin berbetan izan gora, eta esan digutenez, ez daude lokal berriarekin konforme, baina besterik ezean, behin-behineko lakala izoteko baldlnizarekin onartuko dute: "Aurrekooren ercha da tamainaz, deno zutobez beteta dago, errepidea gurutzatu behar da bertaratzeko, eta Azkena dantzalekua ere parean daukagu", kexatzen ziren gazteak.
Urteak ez dira olferrik pasa, eta Elgoibarko Gaztetxeon ekitaidi asko egin dira. Jarraian datozen argazkietan daburbildu dugu Gaztetzearen zazpi urteetaico historia.





*Dena egireko zegoen...*

*Pokki-pokki ekintza desberdinak antolatzen hasi ziren.*

*Kontzertu interesgarri ugari izan dira Gaztetrean. Argazkian 6Nemen9 elgoibartarrak ageri zaizkigu. Ehun Kilo taldearen azken kontzertua, Etsaiak, Ton Taun, Parasma, Fermin Muguruza eta DUT, La Polla, Lorelei, Morhos, Zea Mays, EH SukaimAsier Serrano, In Vertion, Su ta Gar, MCD, Pi.L.T., Nuevo Catecismo Catolico, The Body Snaehers, Teeu dogs, Fist Fucking..*
*Hauetaz gain, estatu rnailake eta Nazioarteko taldeak ere izan dira: Letz Zep edo Ktulu esaterako.*



*Irteera desberdinak;*

*eipeleologia,'Inendi"irteerak, sagortletegira,*

1 *ailerrak, antzerida, antza, sukaitiaritza,* nateriat. *eta* Inurat *besteak beste.* ikastaroak,





# bernz ere utseti asi e ar





Jenare asko Gaztezr a bozhfri ea eginiko herrikojetan.

Galte erreek Asa ablacial garbitze oaikt.



Udalak ez duela bere hitza bete kontatu digute: "Gaztetxea bota baino bi hilabete lehenago abisatuko zigutela esan ziguten, gurekin kontatu gabe ez zutela ezer egingo eta lokala herri erdialdean egongo zela. Azkenean, hiru aste falta zirela abisatu ziguten, beraiek nahi zuten lokala erosi zuten inolako iritzirik eskatu gabe, herritik unutira bidali nahi gaituzte, eta behin behineko lokala behin betiko lokal bihurtu nahi dute".

Zazpi urte eta gero, berriro ere hutsetik hasiko dira lanean, Mupem lantegiko lokal zaharrean.



*Gazte Asanbladakoek gizarte ekintza desberdinetan hartu dute parte, eta diru bilketa ugari egin dituzte, Zapatistei, Cuseoko bizilagunei edota Euskal Herriko beste gaztetxeei laguntzeko.*






# Prozesio eta elizkizun bereziak izan dira Aste Santuan

## Erramuen bedeinkazioa eta Ama Birjinaren eta Kristo Berpiztuaren irudien topaketa izan ziren ospakizun nagusiak

Aste Santuko oporrak henitik kanpora joateko aprobetxatzen dituzte askok, baina hala ere, herritar ugari dira tradizioari jarraituz, Aste Santuko jai egunak elizara joan eta prozesioak ikusteko aprobetxatzen dituztenak.

Erramu Igandearekin hasi ziren Aste Santuko ospakizunak. Elizako atarian erramuak bedeinkatu ostean, Jesukristo Jerusalemera iritsi zeneko prozesioa egin zuten herriko kaleetan. Txistularien doinuen laguntzaz, eta Benantzio parrokoaren bedeinkazioa jaso ostean, urteroko itzulia egin zuen prozesioak. Plaza Handitik hasita, San Bartolome kalea zeharkatu ostean, Errosario kaletik itzuli ziren Parrokiara meza entzutera.




*Jende asko bildu zen Plazan erramaak bedeinkatzeko.*

**Ostegun eta Ostiral Santuak**

Ostegun Santu Egunean, Azken Afaria gogoratu zuten, Ostiral Santuan, Jesukristoren heriotza, larunbata bijilia eguna izan zen, eta igandean, Pazko Egunean, alegia, bukatu ziren Aste Santuko ospakizun erlijiosoak.

Pazko Igandean, hilaren 11n, prozesioa izan zen meza nagusiaren ondoren. Ama Birjinaren eta Kristo Berpiztuaren arteko topaketa irudikatzen du prozesio honek. Bi irudiek Plaza Handian bat egitean, ohitura zaharrari jarraituz adorazіozko hiru agurrak egin zituzten.

Aste Santuan Elgoibarko eliza guztietan elizkizun bereziak eskaini ziren, eta prozesio eta penitentzia desberdinak egin ziren.

# Estatu osoko salbamendurako txakurrek Alba Fundizioko hondakinetan egin zituzten entrenamenduak

## Euskadiko Salbamenturako Taldeak antolatu zuen lehiaketa




Salbamendurako Ekipoen X. Proba Homologatuen barnean Espainia osoko salbamendurako txakurrek entrenamenduak egin zituzten Elgoibarko Alba Fundizioko hondakinetan, joan zen larunbatean, apirilaren 10ean, Euskadi, Asturias, Las Palmas, Tenerife eta Alemaniatik etorritako txakurrek hartu zuten parte entrenamenduan.

Lehiaketa Euskadiko Salbamendurako Taldeak antolatu zuen. Talde honek Elorrion dauka bere egoitza, eta 17 urtetan zehar, ezbehar desberdinen osteko biktima bilaketetan hartu izan du parte.

**Elgoibarkoa, azken proba**

Lehiaketa ostegunean, hilaren 8an hasi zen Elorrion. Lehenengo obedientzia proba pasatu behar izan zuten txakurrek, eta hori gainditu zutenean, pinudi batean ezkutatutako biktimak bilatu behar izan zituzten. Azken proba Elgoibarko Alba Fundizio zaharrean burutu zen. 1000 m$^2$ko espazio batean espresuki ezkutatutako biktima batzuk bilatzea zen probaren helburua, baina inork ezin izan zituen biktima guztiak beharreko denboran aurkitu. Arratsaldez, 2000m2ko espazioan lan bera egin behar izan zuten goizez sailkatu ziren bost taldeek. Oraingoan lan bikaina egin zuten taldeek, eta Euskadiko hiru taldek proba gainditzea lortu zuten.

Homologazio Proba gainditu zuten txakurrek, bi urtez jardun ahal izango dute ezbeharretako biktimak bilatzen.

## Elgoibarko laguneak bi urte bete ditu

Gaur, apirilak 16, Elgoibarko KZ guneak bi urte bete ditu. Bi urte hauetan 931 erabiltzaile izan ditu KZguneak. Horietatik 539 lagunek egin dute ikastaroren bat, eta guztira 125 mintegi desberdin eskaini dira.

Orain arte bezala, KZguneak ikastaro eta mintegi herriak eskainiko ditu, elgoibartar guztiak teknologi berrien mundura gerturatzeko asmoz. Hasi berrientzat, IT KZgunea izeneko ikastaroa antolatu dute. Bertan ordenadorea erabiltzen, informazioa bilatzen., posta elektronikoa eta Outlook Express-aren konfigurazioa eta erabilera eta beste hainbat gauza eralcutsiko dira. 20 orduko ikastaroa izango da guztira, 10 egunetan eskainiko da, bi orduko saioa egun bakoitzean. Ikastaro hau apirilaren 19tik 30era bitartean eskainiko da.

Honekin batera, bere ezagutzak aberastu nahi dituzten pertsonek mintegi desberdinak egiteko aukera izango dute apirilean zehar: Zure egunkaria irakurri (apirilaren 13an, 17:00etatik 18:00etara), euskal nekazaritza



(apirilaren 14an, 18:00etatik 19:00etara), Flashget (apirilaren 15ean, 18:00etatik 20:00etara), eta Fagor gida gastronomikoa (apirilaren 2lean, 16:30etik 17:30era).

Bestalde, KZguneak nabigazio gela bat dauka. 16 urtetik gorako edozein pertsonak interneten dohainik nabigatzeko aukera izango du. Interesatuek lagunean eskuratu dezakete informazio gehiago, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara bitartean.

## Enpresa bat sortzeko ideia duten langabetuentzat ikastaroa

Debegesak, eskualdeko langabetuei zuzendutako enpresen sorkuntza ikastaroa eskainiko du datorren apirilaren 19tik aurrera. 52 orduko iraupena izango du eta maiatzaren 5ean bukatuko da.Ikastaroa enpresa ideia bat duen edozein pertsonari zuzendua dago. Besteak beste ondorengo gaiak landuko dira: Laguntza Programak, Ekintza Analisia, Marketing-a, Merkatu Azterketaren Analisia, Merkatal Teknikak, Era juridikoak eta enpresen sorkuntza, Finantza Saila, Sail Fiskala, Lan Egoera eta Aginte-mahaia. Interesatuek 943 820110 telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko.

## Belk Virtool proiektua aurkeztu zuen Euskal Herriko Lanbide Heziketako II. Azakan

Joan zen martxoaren 30ean, Elgoibarko IMHk Virtool proiektua aurkeztu zuen Euskal Herriko Lanbide Heziketako II. Azokan.

Virtool proiektuaren helburua fabrikazio mekanikorako makina konbentzionalak (eskuz kontrolatuak) eta CNCak prestatu, erabili eta mantentzeko formazioa eskaintzea da. Ikaskuntzarako modu berri honek aukera asko eskaintzen ditu: errealitate birtuala eta elkarrekintzarako 3D sistemak (hiru dimentsio) erabiliz, ikaskuntza prozesua eraginkorragoa da. Virtoolek istripu arriskua murrizten du



industria-makinak erabiltzen ikasi bitartean, ikaskuntza prozesua merketzen du eta makina gehiago erabiltzeko aukera eskaintzen du.

## Errege Bezpera Egunean Bergaran eginiko zozketa

Debagoienako Euskal Herrian Euskaraz Taldeak zozketa bat egin zuen Errege Bezpera Egunean Bergaran. 778 zenbakia izan zen saritua, eta esan digutenez irabazlea elgoibartarra da. Beraiek datuak galdu dituzte, beraz, zenbaki horren jabea BARRENera ager dadila txartelarekin, eta gero guk bidaliko dizkiegu datu guztiak.

abMitiViOrrldi K41%
AISIAi_DI TALDEA

uzTrAILIERAKO
13E 1RAL EAK
BIEIHIAR IDITUGU

BIDALI CURRICULUM A APIRILAREN 30erako

Informazioa gehiago: Elgo1barkolzoira Kulb Ell.arleolUblicare 4, beheal
943 74 16 26 (Nerea Oriederral • E-posta: nerecZYelgoibarkoizarro.com

Zahaldu dute Arrantzaleen Pasealekua

# GUS7ZEN AL 1111311 113AI ERTZEKO PASEALEMIA?



### ANTONIO BOYER
65 urte, jubillatua

Bai, Maltzagaraino joan izan naiz, eta oso ondo dago. Noizean behin pasiatzeko leku egokia da, eta Elgoibarren falta zen honelako lekuren bat.

### JULEN ANSOIk
19 urte, ikaslea

Ondo ikusten dot, baina uste dot barandilak bihar diala, bestela edozein ume uretara jausi leike. Pasiatzeko ondo dao, herrixan edo Mintxetara jun gabe, leku laua da eta gertu dao.





### AMAIA ARRIETA
47 urte, ume zaintzailea

Ez dot ondiokan bertan pasiau, baina gustatzen jata. Aurrerago seguruenez ibiliko naiz. Nere ustez, barandilak falta dia, baina uste dot hasi diala ipintzen.

### NEREA LARIZ
37 urte, fisioterapeuta

Kolektorian obria aprobetxau izana ondo iruditzen jata, baina pasialeku deitzia gehixegi da. Txukun geratu da ingurunia, baina ez dot uste probetxu haundiko lekua danik.





### IKER BEITIA
33 urte, komertziala

EskiIarak ditxu, eta umien kotxiakin bajatzeko zailtasunak jartzen ditxu. Guk ume bat dakagu, eta bigarrena bidian dator, beraz, ez dot uste asko ibiliko geranik. Bestela lekua ondo dao,

### ANA ARTETXE
44 urte, administraria

Neri gustatzen jata. Hemengo industriak sortzen daban diru guztia kostaldian inbertitxu biharrian, atraktiborik ez daukaten herrixak txukundu bihar dia.



ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 fek 943 74 11 89

111
Mandiole Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 11 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



Ainhoa MatEO ELKARRIZKETA Mobiletako mEzuak GAIA Jokin Altuna HANDIA NAIZENEAN

# Gazti BaRRen

NAI



# Segapotoen Mezu Sekretuak

## (ME AND MR, JOHNSON"

### ERIC CLAPTON

Hogeita zazpi urte zituela 1938an zendu zen Robert Johnson. Gitarra eta ahotsa izan ziren bere sentimenduak adierazteko instrumentuak eta bluesa bere olerkiak ezagutarazteko kantua. Bere heriotzaren inguruan hainbat hipotesi zabaldu dira urte guztiotan. Hala ere, pozoindu egin zutela da bertsiorik hedatuena. Ez zituen abesti asko grabatu Mississippiko musikariak. Bestalde, bere eragina izugarria izan da. Ben Harper, Rory Gallagher eta Rolling Stones bezalako talde eta bakarlariak izan dira, besteak beste, Johnson-en kantak moldatu dituztenak. Eric Clapton betidanik izan da Mississippiko bluesmanaren jarraitzailea. Claptonek 1966ko *John Mayall's Bluesbreakers with Eric Clapton* diskoan grabatu zuen estrainekoz ahotsa kanta batean. Johnson-en "Rambling on my mind" abestian hain zuzen ere. Orduz geroztik, hainbat izan dira britaniarrak Johnson-i egindako keinuak: "Cross Road Blues" Cream-en zegoenean, "I'm a steady rollin man" bakarkako garaian... Orain Johnson-en omenezko disko oso bat argitaratzea erabaki du "Slowhand"-ek. "Me and Mr. Johnson" izeneko diskoan Clapton bere ohiko kideez inguratu da, Andy Fairweather Low, Nathan East eta Steve Gadd, besteak beste. Eta jakina da Claptonek zeinen ongi egiten duen bluesa. A ze luxua! Clapton eta Johnson, biak lan berean. Merezitako omenaldia.

**Ion Gurrutxaga**




## AINHOA MATEO, begiralea

# "HaurrEk bErc kasa baliatzEu ikastEa da gurE hElburuEtak

**AINHOA MATEO (22 URTE) ATXUTXIAMAIKAKO BEGIRALEA DA DUELA LAU URTETIK. MAGISTERITZA ATZERRIKO HIZ KUNTZAN IKASTEN HASTEAREKIN BATERA EMAN ZUEN IZENA BEGIRALE IKASTAROAN. ASKO GUSTATU Z TZAION ETA HALAXE HASI ZEN ATXUTXIAMAIKA BEGIRALE TALDEAN. BEGIRALE LANAREN NONDIK NORAKOAK AZALDU DIZ KIGU.**

### Zer da Begirale izatea?

Begiraliok ez gara haurraren gurasoak ezta irakasleak ere, hitzak adierazten duen moduan dena gainbegiratzeko ardura dugunak baizik. Gure lehen helburua haurrek ondo pasa dezatela da, baina bronkia bota bihar bada bota egingo diegu, noski. Eurek ere badakite arazoren bat badaukate guregana jo dezaketela, eta ulertzen dute ez garela gurasoak ere.

### Zer jarrera izan behar du Begirale batek?

Bihar danian autoritate pixka bat erakutsi bida, baina gero jolas eta abarretan euretako bat gehiago izaten saiatuz. Eta berdin eurekin berba egitean, esaten dutena entzuten ere jakin bida.

### Begirale izateko berezko zerbait behar al da?

Ez, gogua eukitzearekin nabikoa da. Umiak gustatuz gero eta pazientzia eukita nahikua da.

### Zerk erakarri zintuen, bada?

Beti euki dot argi umiak asko gustatzen jatazela eta ikastaruan oso *gus*tura egon nintzan umien psikologia, jolasak, etab ikasten. Batzuei astuna egin zitzaiela dakit, baina niri ez.



bat"



### Aste Santuko Udalekuetatik etorri berri zara? Zer egiten da horrelako lekuetan?

Aurten Aubixara jarraian joaten naizen hirugarren Aste Santua izan da. Bertan, irteerak egiten ditugu inguruetara: Arratera, San Pedrora edo bestela kanpoan dagoen zelaia aprobetxatzen dugu jolasak egiteko. Eta kanpoan ezin bada eguraldiagatik etxe barruan egiten ditugu jolasak, tailerrak, etab. Honez gain, haurrek bere kasa baliatzen ikastea ere bada helburuetako bat. Ardurak hartzen ikasten dabe: mahaixa jarri, kendu, erratza pasa, arropen ardura, etab. Danon artean egin behar direla lanok irakasten saiatzen gara.

### Dena ez da jolasa, beraz?

Udalekuok guraso eta haur̄entzako mesedegarriak direla uste dot, haurrak haur artean egotean ireki egiten baitira, sozializatu. Udaletuetan esaterako, beste herrietako haurrekin erlazio oso onak sortzen dira eta askok urteetan mantentzen dituzte. Eta gurasoek ere eskertzen dute haurrak gurekin etortzea, askok lan egin behar izaten baitute haurrek jai dutenean.

### Zein irteeraz edo ekintzetaz duzu oroitzapen on bat?

Lehenengoaz dudarik pe. Praktiketan joan nintzen Urdulitzera (Nafarroa) udan. Begirale elgoibartar bakarra izanik nahiko urduri nauan, baina zorionez giro oso ona euki gendun begiraleon artean eta Anaia Handia modukoa izan zen neretzat. Asko lagundu genion elkarri eta egunak eramangarriagoak izan ziren, 15 egunetan zaila baita animoa goian mantentzea.

### Adinaren arabera ezherdina izango da, ezta?

Edade bakoitzak bere xarma eta desabantailak ditu. Adin bakoitzarentzat egokienak izan daitezkeen ekintzak aukeratzen saiatzen gara. Ekintza bat antolatu ostean ebaluatu egiten da eta horren arabera jakin dezakegu hurrengorako balekoa den edo ez.

### Mutil gutxi ikusten dira begirale lanetan, ezta?

Bai orokorrean neska gehiago gara. Atxutxiamaikan 30 begirale inguru gaude eta bakarra da mutila. Ez dakit arrazoia, mutil begiraleekin lan egin dot eta umiek asko eskertzen dabe. Bai neskak eta bai mutilak ere, eurekin identifikatzen baitira.

### Animatuko aI zenuke jendea hegirale izateko?

Bai, dudarik pe. Inork ez dezala pentsa begirale izanez aberastuko denik, baina beste alderdi askotan oso aberasgarrixa da.

**Bihar danian autoritate pixka bat erakutsi bida, baina gero euretako bat gehiago izaten saiatuz"**



## (POEMA ANTOLOGIA'

urtengo martxoaren 10ean hamar urte bete dira Charles Bukowski idazlea hil zela. Los Angeles-koa, beharbada, azken idazle madarikatua izan zen. Bere idatzietan Estatu Batuetako gizartearen beste aldea erakutsi zuen. Izan ere, bere liburuetan marginalitatearen inguruko pertsonak agertzen ziren protagonista gisa: kaleko eskaleak, mozkortiak, prostitutak... Neurri handi batean, bere idazlanak sortzeko bere bizitzan oinarritu zen, bera ere ingurune horietan ibili zelako Los Angeles-ko hirian. Bukowskik poesia nahiz narratiba landu zituen eta nola batean hala bestean lortu zuen arrakasta. Gurean, duela zenbait urte, Josu Lartategi bizkaitarrak poeta estatubatuarraren poemak euskarara itzuli zituen eta Susa argitaletxearen poesia bilduman ikusi zuten argia "Poema antologia" izenburupean. Bertan, kronista underground honen ohiko gaiak topatu ahal dira: alkohola, taberna giroa, zaldi lasterketekiko grina, emakumeak... Bukowskiren poesia oso zuzena da, estilo gordinekoa eta ez da apainduretan galtzen. Liburu honez gain, euskaraz egile beraren "Pulp" nobela ere irakur daiteke. Liburu horretan Bukowskik barre egiten die ohiko nobela poliziakoei.

Jon Eugi



GAIA

# Segapotoen M



**TE1Efono mugikorrak onddoak baino azkarrago ugaritu dira azken urteEtan eta Egun, edozein baztErrEtan ikus ditzakegu.**
**LitekeEna da gurE irakurleak Ere Estatu espainiarrean tElefonia mugikorrarEn bezEro diren multzo izugarri horrEtako kide izatea, oso jendE gutxik Egin dio uko mugikorra edo sEgapotoa edukitzeko tEntazioari Eta Egunero pasatzEn zaigu burutik galdEra bEra: "Nola bizi ote nintekeEn horrelako tresnarik gabe?", harritu Eta guzti egiten gara norbaitEk mugikorra EZ duEla aitortzen digunEan.**
**HasErretzEko, maitEmintzEko, ziria sartzeko, gozatzEko, adarra jotzeko... ba al da bidE Egokiagorik mugikorrEtako mezuEna baino?**
**SEgapotoaren asmakuntzak 160 karakterE Erabil ditzakeEn mEzuEn hedakuntza Ekarri du. DEI bat Egin bEharrEan mEZU bidEz komunikatzEn gara gaur egun. 15 zEntimo balio duten MEZUEZ. alegia.**

Baina... nazkatuta gaude, aspertuta, jada hatz lodia nekatuta daukagu. Mezu bat idatzi nahi eta biblia mobilean. Zerbait kontatu nahi eta ordu bete mezua idazteko, eta gure sakela hutsik. Honen irtenbidea, laburrago idatzi, gazteleraz egiten den moduan. Eta horretan hasi gara baina nik bidalitakoa besteak ulertzea... batek zerbait esan nahi eta besteak beste zerbait ulertu. Zazpi mezu bakoitzak, bion sakela hutsik.

Eguneroko lagunen artean hobeto ala okerrago baina moldatzen gara. Baina jende berria ezagutzen dugunean, zer? Orduan hasten dira berriro komeriak! Berarekin geratu nahi eta bost ordu eta hamabost mezu beranduago konturatu zara aiton-amonekin afaria duela.

Lazkaoko San Benito Ikastolakoak Kilometroak 2003rako liburuxka bat argitaratu zuten, gazteek erabiltzen ditugun mezu Iaburrak euskaraz lantzeko zailtasunen aurrean.

Garai batean, esku batekin idatzi genuen: lumaz, boligrafoz, arkatzez... Ondoren idazmalcinak asmatu ziren eta bi eskuetako hatzekin idazten hasi ginen, (batzuk birekin, trebeenak hamarrekin). Bat-batean ordea, ia konturatu gabe, denak hatz bakarrarekin eta modu desberdinean idazten hasi ginen; zibereuskaraz.

Zibereuskara sortzen ari da eta gero eta indar handiagoa ari da hartzen, batez ere gazteen artean Internet, txat eta segapotoen eraginaren ondorioz. Agian nabarmenena, lagunarteko erabilera idatzian sumatzen da: hitz egiten dugun moduan idazten dugu.



# MEZU SEkrEtUak

## MEZUAK BIDALTZEKO GOMENDIOAK

1. Ahalik eta **karaktere gutxien** erabili

**2. Bokal gehienak soberan daude.** Gehienetan, kontsonanteen bidez uler genezake hitza (skrriksk=eskerrik asko)

**3. "H" ez da ia erabiltzen,** akronimoetan ez bada

**40.Zenbakiak eta zeinuak noka ahoskatzen diren,** hala erabili (2ar=bihar).

**5. Batua eta euskalkiak, denak dira baliagarriak.**

1

**6. Maiuskulak hitzak nabarmentzeko** erabiltzen dira. (OIUK AI ZTE!= oihuka ari zarete).

**7. Ongi pasa eta gutxi gastau!**






## MEZUETARAKO HIZTEGIA

| | |
|---|---|
| ATH | Athletik |
| RL | Erreala |
| EH | Euskal Herria |
| Gpzk | Gipuzkoa |
| Agr, aio | Agur |
| Atsld | Arratsalde |
| Tzo | Atzo |
| By | Bai |
| Bndu | Berandu |
| 2arte | Bihar arte |
| Dt | Deitu |
| Gzk | Gaizki |
| Grgrd | Garagardo |
| Gr | Gaur |
| Wap@ | Guap@ |
| Kxo | Kaixo |
| Lrril | Larunbat |
| Zmz | Zer moduz zaude? |
| BIN | Berandu iritsiko naiz |
| EG | Eutsi goiari? |
| GA | Gero arte |
| HK | Hor konpon! |
| HPH | Hoa popatik hartzera |
| KKZH | Kaka zaharra! |
| MZ | Maite zaitut |
| NZ | Non zaude? |
| X | Muxu bat |
| ZIINK | Zorionak! |

2004-IV-I6

# informazioa

## TELEFONOAK

| | |
|---|---|
| **OSASUNA** | |
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoholiko Anonimeak | 943 74 03 85 |
| D.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |
| **GARRAIOAK** | |
| Eusko Trenbideak. | 943 74 04 42 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 OB 98 |
| **UOALA** | |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Udal Krol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 5B |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Elgoibarko Izarra.. | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Libu rutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |
| Gazte Informazioa | 943 74 14 61 |
| **ADINEKOEN ETXEAK** | |
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

## Eusko Eusko ren AI TOM S

DONOSTIA-BILBO
Egunero
Donosria 5.⁻ 5 06...15.. 20.45
Figuihar 07.02 08.02.. 22 02
ialeglinclar114:5can haslko dira

MENDARO-ELGOIBAR
Egunero
Mendaro 07. 5{} 08 50 21 50

BILBO-DONOSTIA
Egunero
Ilill>o 06:00 7.00... 20.00
1'.1guibar 07.23 08.23... 21.23
• jaiegunetanI.Opetan dira

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan
Elgoibar 07.25 08.25 10.25... 21 25

Jaiegunetan.
Elgolbar 08.25 09.25 10.25... 21 25

## ELGOIBAR

siemn ARRIAGA

| S1GMA | - ARRIAGA | ARRIAGA - | SIGMA |
|---|---|---|---|
| 8:00 | 8:10 | 8:10 | 8:20 |
| 9:25 | 9:35 | 9:55 | 10:05 |
| 11:10 | 11:40 | 11:10 | 11:20 |
| 11:20 | 11:50 | 11:40 | 11:50 |
| 12:10 | 12:40 | 12:10 | 12:20 |
| 12:20 | 12:30 | 12:40 | 12:50 |
| 13:10 | 13:20 | 13:10 | 13:20 |
| 13:20 | 13:30 | 18:10 | 18:20 |
| 18:20 | 18:30 | 19:00 | 19:10 |
| 19:10 | 19:20 | | |




**Lan dosierrak, bekak, lehiaketak.., guzti honen inguruko informazioa**

# izandakoan..,
ri
# MEDIKUA





**IOK1N ALTUNA**

